

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAREN DOKUMENTUEN KUDEAKETA (Zeharkakoa)	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0455		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	ekoizpen mekanikoa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Produktuen dokumentu teknikoak	Iraupena	160
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Fabrikazio mekanikoko produktuen irudikapen grafikoa		40
	Dokumentu teknikoak prestatzea, CAD-CAM programak erabiliz, fabrikazio mekanikorako (Zeharkakoa)	Iraupena	90

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0107\_3ko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin: FABRIKAZIOKO PRODUKTUEN DOKUMENTU TEKNIKOAK EGITEA

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Fabrikazio mekanikoko produktuen txosten teknikoak egitea.

EI1.1 Garatutako produktuak erabiltzeko eta haien mantentze-lanetarako behar diren jarraibideak eta eskuliburuak aplikazio informatikoak erabiliz egitea.

EI1.2 Proiektuaren txostena egitea, memoriak, planoak, eskemak, muntaketa-planoak eta mantentze-lanetarako jarraibideak sartuz.

EI1.3 Proiektuaren informazio grafikoa eguneratzeko prozedurak eta dokumentazioaren kudeaketa deskribatzea.

EI1.4 Laneko eta ingurumeneko arriskuak prebenitzeko kontuan izan beharreko arauak buruzko txostena egitea.

##### Edukiak

##### 1. Erabiltzaile-mailako informatika-ezagutzak

- Testu-prozesadoreak:
- Testu-fitxategiak sortzea.
- Datu-baseak.
- Kalkulu-orriak.
- Aurkezpenak.
- Web-orriak.
- Internet garapen profesionalerako.

##### 2. Dokumentu-kudeaketa.

- Dokumentuak eguneratzeko prozedurak:
- Produktuen dokumentuen ordena, sekuentzia eta egituraketa.
- Kalitate-eskulibururako dokumentu-ekarpenak (trazabilitatea, prozesuak, prozedurak...).
- Proiektuaren txosten teknikoak.
- Memoria.
- Planoak.
- Materialen zerrenda.
- Baldintza-agiria.
- Aurrekontua.
- Proiektu baten informazioaren antolaketa:
- PDM/PLM sistemaren kontsulta.
- Produktuaren datuen, bertsioen eta jakinarazpenen kudeaketa.
- Produktuaren kudeaketa bizi-ziklo osoan.
- Produktuaren erabilera-eskuliburua:
- Erabilera-eskuliburua.
- Mantentze-lanetarako jarraibideak.
- Produktuari aplikatu beharreko araudia (CE marka, segurtasuna eta birziklapena).
- Dokumentuak eguneratzeko prozedurak.

**C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Gaindituak izan behar ditu UF0453 Fabrikazio mekanikoko produktuen irudikapen grafikoa eta UF0454 Dokumentu teknikoak prestatzea, CAD-CAM programak erabiliz, fabrikazio mekanikorako

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Fabrikazio mekanikoko produktuen diseinua.